

BERRIGARA

296. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, urriak 24

Urteko
enpresa
gizona

Javier Berasategi

Nissan Primera berria.

*Makina perfektua
eskura daukazu Bergaran.*



Blanco

Amillaga, 22. Tf. eta faxa, 76 17 35

NISSAN NISSAN

BERGARAKO OSASUN gida

■ ALBAITARIAK:

- ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobila: 907 48 71 19
- ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)
- ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAICO ALBAITARI OFIZIALA)
- IRASTORZA BENGEOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)
- NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47

Zurradero, 6 behea
Mobila: 908 77 17 32
Mobila: 908 77 17 32
Iribar baserria ANTZUOLA
Koldo Eleizalde, 28

☎ 76 70 67
☎ 76 43 29
☎ 76 43 29
☎ 76 63 46
☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA ISABEL

Oxirondo 4, 1. B

☎ 76 32 06

■ BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN VICTOR

Oxirondo 4, 1. B

☎ 76 32 06

■ DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL
- BERGARA HAGIN KLINIKA
- GOROSABEL J. ALBERTO
- IRIARTE IDOIA
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.

Iparragirre, 1 behea
Bidekurutzeta 6, 2
Fraiskozuri, 5 behea
Artekale 1, 1. C
S. Arrieta 3, 2. B

☎ 76 27 95
☎ 76 05 77
☎ 76 56 88
☎ 76 01 65
☎ 76 38 54

■ DERMATOLOGOAK:

- GARCIANDIA CRISTINA

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

■ FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)

Artekalea 1, 1H

☎ 76 43 71

■ GINEKOLOGOAK:

- SERRANO DOKTOREA

Ramon María Lili, 2

☎ 76 59 39

■ MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL JOSE JABIER
- AZPEITIA IRUNE
- CASANELLAS JABIER
- PAYROS AITZIBER
- ETXEBERRIA ANA

Boni Laskurain 1, 2. A
Agorrosingo igerilekuak
Boni Laskurain 5, 2. E
Bidekurutzeta, 46 behea
Errekalede, 6 behea, ANTZUOLA

☎ 76 15 74
☎ 76 20 51
☎ 76 03 78
☎ 76 52 62
☎ 76 60 13

■ MEDIKUNTZA ESTETIKOAK:

- BENITO ISABEL

Bidekurutzeta 46, behea

☎ 76 52 62

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA

Boni Laskurain 2, behea

☎ 76 20 50

■ OTORRINOLARINGOLOGIA:

- IGARTUA JULIAN

Barrenkalea 35, 1. ezkerria

☎ 76 70 91

■ PEDAGOGOAK:

- IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOAK: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZATEA)

Simon Arrieta 3, 2. E

☎ 76 26 42

■ PODOLOGOAK:

- ALTUBE EDURNE
- AZPIAZU ARANTZAZU

Simon Arrieta, 2
Herri Lagunak, z/g.

☎ 76 07 84
☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

- GALLASTEGI PABLO

San Martin Plaza 2, 1. ezkerria

☎ 76 26 64

■ PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZATEA)
- URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOAK)
- ZUBILLAGA ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOAK)

☎ 76 14 80
☎ 76 53 13
☎ 76 30 76

■ REUMATOLOGIA:

- MORAGUES CARMEN

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
ID: 76 03 97
Faxa: 76 29 77

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte

Zuzendaria:

Enako Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberebizbar

Maketazioa:

Iturbe

Publizitatea:

Justina Romero

Harpidetzak:

Sonia Elortza

Testuen zuzenketak:

Jesus Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Sonia Elortza

Miguel Angel Elkoroberebizbar

Alex Labaien

Komikiak:

Enko Rodriguez

Sonia Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugaldé

Enko Azkarate

Banaketa:

Erantxangorri taldea

Tirada:

1000 ale

Primategia:

Antu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

83/50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

JOSE ANGEL MIKEO


Debaguneko presidentea

- Debagune Deba Garaiko euskara elkar-teen elkargoak bailara-ko jatetxeen gida kale-ratu du. Zer eskeintzen du gidak?

- Bailara osoko jate-txeen eskeintzak 100 fitxatan bildu ditugu eta jatetxe bakoitzaren ezaugarriez gain, fitxa bakoitzak sukalde errezeta bat eskeintzen du, etxean erabilgarria izan dadin. Informazio guzti hori batu, zuzendu eta argitaratu baino lehen jatetxeei erakustea ez da lan makala izan. Mila plater eta sukalde-adiera ezberdinen itzulpenak jasotzen dira eta jatetxeetako kartak berrizteko gida-liburu gisa erabili ahal izango da.

- Zerk bultzatu zintuzten gida lantzeraz?

- Alde batetik ikusi ge-



nuen bazegoela joera bat inguru honetan jatetxe-tara joateko eta jatetxeen inguruko informazio guzti hori jasotzen zuen gidarik ez zegoenez eta jatetxeetan euskara bultzatu nahirik, ekin genion proiektuari. Kartak euskaraz agertzeko prest azaldu ziren jatetxeak agertzen dira gidan. Gidak 175 orrialde ditu eta 500 pezetan salduko da.

“Debagunek kaleratutako gidan bailara osoko jatetxeen eskeintza jasotzen da”

I T U R R I O N E T I K

Azokako supermerkatua abenduko bigarren astean zabalduko da

Unialcok Oxirondoko azokan jarriko duen Super BM supermerkatua abenduko bigarren astean inauguratuko da. Unialcok azokaren beheko solairuan jarriko duen supermerkatuak, besteak beste, harategia-txarkuteria, frutaderra, arraindegia edota okindegia izango ditu.

Supermerkatuan elikagaiak salduko dira bakarrik. Supermerkatuak 800 m²ko azalera izango du eta bertan 16 bat lagun izango dira lanean. Lokala egokitzeko lanak bide onetik doaz eta, Unialcoko arduradunen arabera, baliteke Super BM abenduaren 8aren ostean zabaltzea.

Unialcoko marketing departamentua inaugurazio ekitaldirako zerbait antolatzea aztertzen ari da.

E S A N
D U T E

“Duela lau urte martxan jarritako Kirola euskaraz programarekin, besteak beste, kirol mundua euskararekiko sentsibilizatzea izan da helburuetako bat. Kirola euskaraz gure programaren bitartez, Euskadi osora zabaldu nahi izan dugu kirola eta euskararen arteko lotura. Arlo honetan esan beharra dago Eusko Jaurlaritzaren eta EAE-ko hiru Foru Aldundiak ere inplikatu direla eta EAEko hiru lurraldeetan jarri direla martxan Deba bailarako Kirola euskaraz-en antzeko ekimenak. Momentu honetan hainbat bekadun zenbait kiroletako

-igeriketako, judoko eta karateko- fitxa didaktikoak prestatzen ari da eta Eskola Kiroleko monitoreentzako ikastaroak emateaz gain, 1998 urterako programak, finantzabideak eta abar prestatzen ari gara”

IÑAKI UGARTEBURU
Udaleko Kirol teknikaria
ARGIA



EL SECRETO DE LOS ABBOTT

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



DOBERMANN

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.



EL ULTIMO VIAJE DE ROBERT RYLANDS

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ *Abbott* senar-emazteek elkarren artean oso diferenteak ei diren hiru alaba dituzte: *Pamela* (**Liv Tyler**), *Alice* (**Joanna Going**) eta *Eleanor* (**Jennifer Connelly**). Gaztetan euren aitarekin maiteminduta egon zen *Helen Holtek*, berriz, gogor lan egin behar izan du bere semeak aurrera ateratzeko eta egoera honetan bi familien arteko borroka sortuko da. 1960ko hamarkadan girotutako filmea.

▼▼ **Joël Houssin** idazlearen nobela beltzean oinarritutako filmea errodatu du **Jan Kounen** zuzendariak. Akzioz eta tiroz beteriko filme europear honek aurre egin nahi izan die Hollywoodetik heltzen zaizkigun antzerako filmei. Errepartoan **Vincent Cassel**, **Monica Bellucci** eta **Antoine Basler** aktoreak.

▼▼ **Gracia Querejetaren** (*Una estacion de paso*) bigarren filmea iazko Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean aurkeztu zen. Oraingo honetan **Javier Marias** idazlearen "*Todas las almas*" nobelan oinarritu zen Oxfordeko giro akademikoan ezkututzen diren hainbat istorio lantzeko. Ondoren zuzendaria eta nobela-idazlearen arteko polemika etorri zen...

Deiak

▼ **1947**an jaiotakoen afaria azaroaren 8an Lasan. Izen-ematea 76 39 30, 76 22 19 edo 76 22 19 telefonoetan. Bihar zapatua izena emateko azken eguna.

▼ **1940**an jaiotakoen afaria azaroaren 8an Antxoni jatetxean. Izen-ematea 76 11 95 (Mari Karmen) edota 76 40 00 (Maria Luisa) telefonoetan.

▼ **1946**an jaiotakoen afaria azaroaren 8an Tartufon. Interesatuek 76 35 51 telefono zenbakira deitu dezakete.

▼ **Matinala.** Igandean, *Space Jam* filmea goizeko 11:30etan Novedades aretoan.

▼ **Juan Jose Altunaren** margo erakusketa igandera arte Eibarko Topaleku aretoan.

Ogia

▼ **Domeka 26:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 24:** Guallar.
- ▼ **Zapatua 25:** Estella.
- ▼ **Domeka 26:** Estella.
- ▼ **Astelehena 27:** Mozos.
- ▼ **Martitzena 28:** Camacho.
- ▼ **Eguaztena 29:** Puy.
- ▼ **Eguena 30:** Guallar.

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Siaska

Dena zure
haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

“Hegoa-Iparra etorkizun bakarra” erakusketa, Mugen Gaietik erakundeak antolatuta

Igandera arte Mugen Gaietik gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta-ko “Hegoa-Iparra etorkizun bakarra” izenburuko erakusketa ikusgai egongo da Kultur Etxeko erakusaretoan. Bertan jarrirako panelen bitartez, lurra- ren bi hemisferioen artean dauden diferentzia ekonomiko, politiko eta sozialak azaldu nahi dira, ikusleen kontzientzia suspertzeko asmoz.

Mugen Gaietik erakundeak “Aniztasun kulturala” lemapean astean zehar antolatutako hitzaldietan Guatemala eta Afrikan bizi duten egoera ere izan da aztergai, iparralde aberatsak hirugarren mun-

duko herrialdeei eskeintzen dien tratua zalantzan jarriz. Astebukaeran Kultur Etxeko erakusketa ikustera hurbiltzen direnek ere bi hemisferioen artean dauden diferentziak jaso ahal izango dituzte oso modu grafikoan. Paneletan herrialde pobreenetako biztanleek jasatzen dituzten bizi baldintzak kritikatzeko dira, aldi berean herrialde aberatsenei benetako laguntza bidali dezaten aldarrikatuz.

Errotalde jauregiko erakusaretoa 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da zabalik. Ez da sarrerarik ordaindu behar izaten.



Domekara arte ikusi daiteke erakusketa Kultur Etxean.



Argazki erakusketak

Egunotan bi argazki erakusketa ikusgai ditugu Bergaran. Alde batetik, Juan Antonio Unzurrunzaga bergarar argazkilariaren lanak Nahikarin ikusi daitezke azaroaren bukaerara arte. Unzurrunzagak 20 bat lan erakusken ditu, besteak beste, arrantza giroko erretratu eta argazkiak, Pazkuetako zezenketan ateratakoak edota San Martinen Estanpa ikuskizunean jasotakoak. Bestalde, Euskal Herri mailako Argizaiola lehiaketan parte hartu zuten lanen selekzio bat ikusgai dago Pol-Poleko aretoan urriaren 28ra arte, astebarruan 19:00etatik 20:30etara eta astebukaeran 19:00etatik 21:00etara. Aurtengo edizioan Euskal Argazki Federazioak 19 argazkilari (horietatik 3 bergarar) gonbidatu ditu lehiaketan parte hartzera eta aurkeztutako 136 lanetatik 34 aukeratu eta erakusketa antolatu da Pol-Poleko aretoan.

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79

Autoinkulpatu bat naiz

Behin eta berriz, Euskal Herriko askatasuna lortzeko bidean, Espainiako gobernuak oztopo bat inposatu digu. HBko Mahai Nazionalaren epaiketarekin, mahaikideak epaitutako eta kondenatutako bakarrak izango direla ulertaraziz. Euskaldunok ondotoxo dakigu, estatuko eta Ameriketako beste herriek bezala, Espainiako konkistadoreek errepresioa, inposaketa eta gezurrak (ongi etorri ELA sindikatukoak errealitatera!) erabili izan eta izaten dituztela.

Orain, epaiketa honekin, kruzada berri batean sartu gaituzte, herriaren nortasuna (bakezale, ekologista, antisexista, antimilitarista, solidario...) hizkuntza eta kulturaren aurka delako.

HBko Mahai Nazionalarekin autoinkulpatu egin naiz. Honela, pauso handia eman dut bakea lortzeko. Bide latza eta neketsua gurea, baina pozgarria izango da ekarriko duen ondorioa: Euskal Herriaren askatasuna!

"Lana eginez goaz aurrera, atsedenek hartu gabe..."

PITO (NAN: 15.367.979)

Argi falta kiroldegira bidean

Aspaldian uste dut irakurri nuela nik komentatu behar dudun gaiari buruzko beste karta bat, baina egoerak hobera egin ez duenez, lerro hauek idaztera animatu naiz. Kontua zera da: Beheko Estazioetik Kiroldegiraino bidea ez dago batere argiztaturik eta uste dut ordua dela Udalak edo dagoenak beharrezko neurriak hartzeko. Egunero bergarar asko eta asko dira bide hori oinez egiten dutenak eta arratsaldeko 7etatik aurrera ez da ezer ikusten. Argi falta dela eta istripuren bat izateko arriskua handia da. Ez dut uste farola batzuk jartzea asko kostatuko denik eta Udalak herritarren zerbitzura egon beharko luke horrelako kasuetan. Egunotan asko dira inguru horretan Behobia-Donostia lasterketa prestatzen ari diren bergararrak eta entrenatzeko baldintza penagarriak dira Zabala tabernatik aurrera ere inolako argirik ez dagoelako. Beste horrenbeste gertatzen da igerilekuetatik Osintxu aldera jo ezker. Berandu izan baino lehen txoko guztiak behar bezala argiztatuta egoteko eskaera egin nahi dut Berrigarak eskeinitako txoko honetatik. Mila esker.

K.M. (NAN: 72.843.992)

Musika Bandaren kontzertua

Igandean, urriaren 19an, eguerdiko 12:30etan Novedades aretoan egon nintzen, sarrera guztien laurdena edo salduko ziren eta neure buruari esan nion: zer sentituko ote dute Musika Bandakoek aretoan hain jende gutxi ikusita? Entsaia egingo dute beste momentu aberatsago baterako. Nik asko gozatu nuen, paradisu baten egon nintzen eta txaloak gogoz eman genituen. Zorionak Bandan jotzen duten artista guztiei eta batik bat Gonzalez Chirlaque zuzendariari.

MARI KONTXI GARAIONDO

Fax zenbaki berria

BERRIGARA eta JARDUNeko fax zenbakia aldatu egin dugu.

Mezu, ohar, idatzi eta abarrak faxez gurera bidali nahi izanez gero,

76 29 77

zenbakia markatu beharko duzu aurrerantzean. Barkatu eragozpenak.

Tiira biraka



**Eskulanak
Gartzela
Zaharrean**

Jardunek antolatuta gazteentzako eskulan ikastaroa dago iragarrita azaroaren 1etik abenduaren 20ra bitartean. Ikastaroa zapaturu 16:00etatik 18:00etara izango da. Elkarteko karneta dutenek debalde dute ikastaroa; gainontzekoek, 500 PTA ordaindu beharko dute. Karneta egin nahi duten gazteek oraindik badute aukera.

**Abdon Juaristiren
pinturak ikusgai**

Bihar arte ikusgai daude Abdon Juaristiren lanak Donostiako Echeberria galerian (Kontxa pasealekuko Zubieta kaleko 20. zenbakian). Echeberria erakustaretoaren ordutegia honako hau da: 10:00-13:00 eta 17:00-20:30.

HILDAKOAK

- Damiana Urzelai Agorralde**
Urriak 16, 85 urte.
- Rolando Goñi Beain**
Urriak 18, 38 urte.
- Maria Rita Jauregibeitia Altube**
Urriak 18, 90 urte.
- Asuncion Larrañaga Orbea**
Urriak 22, 50 urte.

JAIOTAKOAK

- Maitane Larrañaga Zabaleta**
Urriak 17

Erret Mintegiko kupula konpontzen aritu dira

Seminarioko kupula konpontzen hasi dira aste honetan GTE enpresako langileak. Izan ere, elizaren teilatuan dagoen kupularen egoera kaskarragatik itoginak daude eta eraikuntzaren barrualdea oso egoera txarrean dago hezetasunaren erruz.

Seminarioko eraikuntzaren jabetza estatuarena da eta kupularen konpontketa lanak bere kontura doaz. *"Kupula konpontzen hasi dira eta horrek itoginen arazoa konponduko du. Horretaz gain, teilatua ere konpondu beharko luke, baina ez dakigu lan hori egingo duten. Ez litzateke gehiegi kostatuko teilatua konpontzea, gutxi gora-behera 250 teila inguru aldatzea izango litzateke eta"* esan digu Jose Antonio Etxeberria Udaleko hirigintza arduradunak.

Seminarioko konpontze lanak Udalari baime-na eskatu barik hasi dituzte eta legeak agintzen duenez, obra bat hasi baino lehen proiektua udalean aurkeztu behar da dagozkion baimenak eskuratzeko. *"Oraindik ez dugu proiektua idatziz jaso eta obrak baimena eskatu barik hasi dituzte.*



Seminarioko eliza ez dago egoera egokian.

Beste guztiei bezala obrak baimen barik has-teagatik espedientea zabaltzeko asmoa dauka-gu" adierazi digu Jose Antonio Etxeberria hirigintza arduradunak.

Udal Pilotalekua datorren asterako prest

Udal Pilotalekuan ere hezetasunak kalteak eragin ditu. Joan zen udan paretako pintura aldatu eta zartiatua konpondu ondoren hezetasunaren ondorioz pintura erortzen hasi da.

Pintura ezkerreko paretatik, goitik, bi metro ingurura hasi da erortzen

eta horren ondorioz Udal Pilotalekuan jokatu beharreko BKEren partiduak Antzuolan jokatu dira.

Pareta pintatzen ari direnek esan digutenez, gaur bertan amaitzeko asmoa dute eta berriz arazoak ez izateko esperantzarekin, Bartzelonatik pintura berezia ekarri dute. Halere, arazoa ez da pinturaren kalitatea, eta Etxeberria hirigintza zinegotziak esan digunez: *"Udal Pilotalekua erreka ganean eginda dago eta ezkerreko paretaren oinarriak errekan daude; ondorioz, ezkerreko paretaren lehenengo metroak hezetasunak jota daude betidanik"*.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

UNEDen 25. urteurrena

Bergarako UNEDeko ikasturtearen hasiera ekitaldia izango da datorren eguakitzean, hilak 31, arratsaldeko 19:00etan. Juan Jose Alvarez ikastetxeko zuzendariaren agurraren ondoren, Umore Ona abesbatzaren emanaldia izango da. Jarraian, Luis Mari Bandres Gizartekintzako diputatuak eta UNEDeko zuzendari izandakoak, Bergarako Erret Mintegiari buruz hitz egingo du. Wonder Brass Quintet-ek pieza batzuk eskainiko ditu eta, bukatzeko, Roman Sudupe diputatu nagusiak ikasturteari hasiera ofiziala emango dio. Ekitaldian Victoriano Gallastegi alkatea eta Genaro Costas UNEDeko erretorea ere izango dira. UNEDek 25 urte betetzen ditu aurten; Bergarako UNED martxan jarri zela, oster, 21 urte betetzen dira.

Jubilazioari buruzko ihardunaldiak

Gipuzkoako Diputazioko Gizartekintzak antolatuta jubilazioari buruzko ihardunaldiak izango dira azaroaren 3tik 11ra bitartean Bergaran. Ihardunaldiak jubilaririk dauden edo jubilatzen daudenei zuzenduta daude. Hitzaldiak 17:30etatik 19:30etara izango dira eta informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko 900434343 telefonora deitu goizeko 09:00etatik 14:00etara.

Egineko mus txapelketa

Arkupe eta Pol-Pol tabernetan eta Txuringo jatetxean jokatuko dira aste honetan Egin mus txapelketako partidak. Zapatuan 16:00etan Arkupen jokatuko dira eta domekan ordu berean Pol-Polen eta Txuringoan.



Martitzenean herriko etxeak eta ondarea hobeto ezagutzeko aukera izan zuten jubilatuek.

Bihar emango zaio amaiera jubilatuen Kultur Hamabostaldiari

Jende askok parte hartu du antolatutako ekitaldietan

San Joxepe jubilatuen elkarteak antolatutako Kultur Hamabostaldia bihar, zapatua, bukatuko da. 12:00-etan Sierbetan meza emango da eta ondoren, eguerdiko 13:00ean, itxiera ekitaldia izango da Miguel Altuna institutuko aretoan. Bertan, Maria Jesus Aranburu gizarte zerbitzuko diputatua, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Mikel Larrea Antzuolako alkatea izango dira. Ondoren, eguerdiko 14:30etan bazkaria egingo dute Udaleko biltegian. Bazkarirako 175 lagunek eman dute izena eta ondoren herriko enpresa eta dendek emandako opariak zozketatuko dituzte. Bukatzeko dantzaldia dago iragarrita 19:00ak arte. Kultur Hamabostaldian hainbat ekitaldi antolatu dituzte eta elkarteko presidenteak, To-

masa Zabaletak, adierazi digunez oso pozik daude jendeak emandako erantzunarekin. "Hitzaldietara jubilatutako asko joan da eta gainontzeko ekitaldietan ere oso erantzun ona jaso dugu. Eskerrak eman nahi dizkiet hamabostaldia antolatzen lagundu diguten instituzio eta bergarar guztiei". Aste honetan Imanol Sorondok Bergarako eta Antzuolako ermitei buruz emandako hitzaldiak eratzun ona izan zuten. Egun berean, herrian zehar egindako bisitaldi kulturalen jubilatutako talde handi batek hartu zuen parte. Eguen arratsaldean, iharduerara eta adin ezberdineko bergararrek mahai ingurua egiteko zuten. Gaur arratsaldeko 18:00etan, berriaz merienda eta dantzaldia izango da jubilatuen egoitzan.



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

Drogak ebitatzeko gurasoei zuzendutako programa martxan

Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak 15-17 urte bitarteko gurasoei zuzenduta antolatzen duen Drogomenpekotasunen Prebentzio-Osasunaren Heziketarako Programa, datorren martitzenean hasiko da herriko eskolen laguntzaz. Programa hori orain dela bi urte jarri zen martxan. Aurten gurasoek bost filme ikusteko aukera izango dute. Programaren bultzatzaileek es-

pero dute filme horietan agertzen diren istorio eta pertsonaiek zerbait irakastea gurasoei eta hezkuntza, osasuna eta drogomenpekotasunari buruzko hausnarketa egitera bultzatzea. Lehenengo pelikula "Secretos del corazon" izango da, esan bezala, datorren martitzenean 18:30etan Novedades aretoan.



ARTXIBOA

Fernando Sasiainek atxilotuta jarraitzen du eta Ertzantza bere anaiaren atzetik dabil

Joan zen martitzenean Ertzantzak atxilotutako Fernando Sasiain gazteak atxilotuta jarraitzen du. Ertzantzak ETako komando bateko kidea izatea leporatzen dio gazte bergararrari. Atxiloketa eguerdian izan zen bere etxean Zubietan eta Fernandorekin batera atxilotutako bere bi anaiak, David eta Jorge, arratsaldean bertan aske laga zituzten. Gazteek adierazi zuten, "ez ziguten ezer galdetu eta bilutsik flexioak egiten izan gintuzten arratsalde osoan zehar". Atxiloketen aurretik, ertzainek aurrean aipaturiko gazteen anai den Antxon Sasiainek Martoko kalean duen pisua gaueko 03:00etatik goizeko 11:00ak ar-

te arakutzen pasatu zuten. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak adierazi duenez, Antxonon etxetik 10 kilo amosal, tenporizadoreak, lapabonbak egiteko materiala eta atentatuak egiteko objetiboen dokumentazioa atera zuten. Gazte bergararra ezin izan zuten aurkitu eta Ertzantzak atxilotzeko agindua luzatu du. Bi anaiei Gasteizen eta Durangon hainbat atentatu egin izana leporatzen die Ertzantzak.

Atxiloketen aurka protestatzeko manifestazioak izan ziren martitzen eta eguasten gauetan eta herenegun goizean Ipintza institutuko ikasleek trafiko mozketak egin zituzten.

Jesus Mari Garitano HBko zinegotziari mehatxuak

Jesus Mari Garitano HBko zinegotziak bere aurkako mehatxuz betetako bi gutun jaso ditu azkenengo bi asteetan. Bere etxeko buzoian jasotako gutunetan irainak eta bera eta HBren aurkako mehatxuak agertzen dira.

Pol-Pol Mendizale Taldearen irteera Zalduekora

Zalduekora Zegamara egun guztirako mendi irteera antolatuko du Pol-Pol Mendizale Taldeak azaroaren 9an, domeka. Interesa dutenek izena eman dezakete Pol-Poleko bulegoetan azaroaren 8a baino lehen.

Bedelkarreko harakinen zozketa

Bedelkarreko harakinek astero zozketatzen dituzten txuletak 5.565 zenbakiari egokitu zaizkio oraingoan.

Kultur Hamabostaldia Aita Menni ospitalaren mendeurrena ospatzeko

Arrasateko Aita Menni ospitalak mendeurrena ospatzeko musika hamabostaldia antolatu du hurrengo azaroaren 8ra arte. Bihar, zapatua, 17:00etan Easo abesbatzaren emanaldia izango da eta, ondoren, Juan Carlos Irizarrek "Interiores" diskoa aurkeztuko du ospitaleko elizan.

Unai Iturriaga eta Andoni Egaña Artatsen Elkartean

Unai Iturriaga eta Andoni Egaña bertsolariekin bertso afaria egingo da azaroaren 8an 21:00etan Artatse elkartean. Afariaren menua honakoa da: berakatz-zopa, bakailaoa, gazta menbrilloarekin eta kafe konpletoa. Txartelak Arrano, Pol-Pol eta Kortazarren daude salgai 2.300 pezetan.

Javier Berasategi

Euskal enpresa-gizon onena



Bergarako lantegiko gerentea izan ondoren, Javier Berasategi TTT taldeko presidentea dugu gaur egun.

“Kalitate totalaren bidetik, gestio teknika berrietara egokitze ahalmena ezinbestekoa da gaur egun”

Javier Berasategi TTT taldeko presidentea euskal enpresa-gizon onenaren saria jasozuen aurreko astean Bilbon. Bere ustetan inguruan lan-talde bikaina izatea eta merkatuan sortzen diren aldaketei adi egotea izan daitezke sari hau jasotzeko arrazoi nagusiak. Era berean, Europako merkatu bakarraren atarian, hemengo enpresa txiki eta ertainak oso ondo gertatzeko premia ikusten du.

Zer egin behar da euskal enpresa-gizon onenaren saria irabazteko?

- (Barre) Ez dakit ba!! Antolakuntza osoa aurre-ramateko gaitasun moduko bat izan behar da. Baina pertsona bakar batek ez du enpresa bat egiten eta inguruan lan-talde on bat izatea oso garrantzitsua da. Bestalde, aldaketei adi egon behar dago; gaur egun behin eta berriz aipatzen den kalitate totalaren bidetik, gestio teknika berrietara egokitze ahalmena ezinbestekoa da. Hauek izan daitezke sari hau jasotzeko arrazoietako batzuk.

- **Kalitatearekin loturik, AENOREk ematen duen ISO 9002 kalitate ziurtagiria jaso diezue. Zer suposatzen du horrek?**

- Gauzak ondo egiten



Bergarako lantegiko gela honetan energia propioa sortzen duen makina kontrolatzen da.

ari garela esan nahi du horrek, baina hori baino inportanteagoa horrek etengabeko hobekuntza garatzera beharzen zaituela litzateke.

- Momenturik onenean dago zuen enpresa?

- Gure taldean zazpi enpresa dira eta horietatik hiru azken bi urtetan sortu dira. Beraz, nahiz eta egoera ekonomikoa ona izan, enpresa berriek beti dituzte arazoak, merkatuan euren tokia bilatu arte. Hala ere, uste dut egoera onean gaudela, bai enpresa helduak inbertsio berriekin kontsolidatzeko eta bai enpresa berrien oinarriak lantzeko. Horrelako egoerak iraunkorra izan behar du, inbertsioak eta proiektu berriak baitira enplegu sortzaile onenetakoak.

- Momentu txarrik ere igaroko zenuten...

- Izan dira, bai. 1980an nire koinatua eta lantegi-ko zuzendaria zen Joseba Larrañaga hil zenean oso momentu txarra pasatu genuen, asko afektatu

gintuen bere heriotzak. Oso pertsona ezaguna zen herrian eta lantegian lagatako hutsunea ere oso handia izan zen, bera falta zela ez genekien zein bide hartu. Beste momentu txar bat fabrikari heriotz-istripu bat gertatu zenekoa izan zen. Horrelakoetan aurrera egitea merezi duen ere planteatzen diozu zeure buruari. Bestalde, krisi ekonomikoa (93koa adibidez) nahiko modu onean gainditu ditugu.

- Zein etapa desberdinduko zenuke TTT taldean?

- Dibersifikaziorantz jotzea erabaki genueneko oso momentu erabakiorra izan zen. Ordurako, 1985 urte ingururako alegia, Estatuko enpresarik indartsuenetakoa ginen tratamendu termikoen alorrean eta superfi-

zien gaineko tratamenduetara jotzea erabaki genuen. Hemen dugun zentro teknologikoen laguntzarekin "Proyeccion termica por plasma" izeneko proiektua (ISO 9002 ziurtagiria jaso duena) burutzea lortu genuen eta horrek, aeronautikaren atea zabaltzen dizkigu.

- Rolls-Roycerekin lan egin ahal izatea gutxi batzuen eskura egongo da...

- Rolls-Royceek homologatutako enpresa gara baina honelako enpresekin lan egiteak ez du esan nahi etekinik haundiena izan behar duzunik, baldintza ekonomikoiei dagokienez, oso enpresa gogorak baitira. Dena den, Rolls-Royce-engan gehien apreziatzen dudana zera da, teknologia hau garatzen asko lagundu digutela.

"1985 urtearen ingurua, dibersifikaziorantz jotzea erabaki genuenean, oso momentu erabakiorra izan zen guretako"

- 1996ko martxoan, Gipuzkoako enpresagizon onenaren saria jasotzean, "Produccion integrada de vastagos" eta "Proyecto de cogeneracion" izeneko proiektuak nabarmendu zenituen.

- Bai, "Produccion integrada de vastagos" deritzon proiektuari esker amortiguadore edo motelgailuaren zurtaina egiten dugu. Zurtaina amortiguadorearen arima litzateke. Orain arte beti zerbitzuko lana egin dugu; guri ekarritako piezak ezaugarri berri batzuekin bueltatzen dizkiegu bezeroei. Kasu honetan gure produktu bat egiten dugu. Fabrika honetako beste nobedadeetako bat zera litzateke; prozesu guztiak automatikoki egiten direla, makinekin, eta kasuren batean mundu

osoan muntatu den bigarren ekipoa da hemengo.

- Eta ekogenerazio proiektuak zein erantzun izan du?

- Modu batean autonomo izateko balio digu honek. Bueno, orain gas naturalaren menpe gaude, motorra gas naturalarekin berotzen baita. Baina makina batek enpresa osoko gai energetikoa lantzen du eta kontsumo inportantea da hori, labeek 800 eta 1.200 gradu bitarteko tenperaturetan lan egiten baitute. Energia aurrezteaz gain, motorrak sortzen duen beroa aprobetxatzen dugu lurrina eta ur beroa sortzeko. Finlandiako enpresa batekin ari gara lanean; han barku asko dago eta honelako motorren gaietan oso aurrerata daude Europa iparraldean. Geure energia propioa sortuz, ingurugiro baldintzak eta produktibitatea hobetzen ditugu.

“Europako merkatu bakarraren atarian hemengo industria egoera kezkarria dago, oraingo baldintzak ez direlako guztiontzat berdinak”

- Europako merkatu bakarraren atarian zela ikusten duzu hemengo industria?

- Nahiko egoera kezkarria. Guztiak irteera lerro berdinean izango gara, baina momentuan baldintzak ez dira guztiontzat berdinak. Interes tipoek behera egin duten arren, europar interes tipoetatik urrun gaude oraindik; lur zoruaren prezioa eta energia ere garestiagoak dira hemen; Europan hemen baino abantaila fiskal gehiago dituzte... Hori zaintzea subentzioak ematea baino inportanteagoa da, nire ustez. Abantaileri dagokienez, soldatak hemen Europan baino bajuagoak

dira. Era berean, hemen sortzen ziren arazo asko moneta devaluazioarekin konpontzen zituen espainiar ekonomiak. Euroarekin hori ezinezkoa izango da. Neurriak hartu behar dira, ezin gaitezke lotan geratu.

- Zelako aldaketak eman beharko dira Europara egokitzeko?

- Hemen enpresa asko daude eta gehienak txikiak eta ertainak dira. Imajinarioarekin ideia berriak landu behar ditugu, horretarako momentua da eta. Europako beste enpresa batzuekin fusioak egitea interesgarria izan daiteke. Dena den, merkatuen globalizazioarekin ez dira enpresa guz-

tiak multinazionalak izango. Baina hainbat enpresak kualifikatutako proiektuak behar izango dituzte eta oso ondo gertatu beharra dugula kontziente izan behar dugu.

- Merkatu berriak topatzeko ahaleginetan esparru biomedikoa landu izan duzue...

- Euskal Herriaren burdinaren kulturakoak izanik, arraroa egiten da esparru honetan aritzea baina merkatu berriak bilatu behar dira. Dena den, garapena ez da uste bezain inportantea izan. Titanio edota altzairu herdoilgaitzeko inplantei hidrosiopathita kapa bat ematen diegu hezurri hobeto egokitzeko. Ez da Estatuan asko garatu den teknologia, ez baitago horretan diharduen enpresa askorik.

- Ekonomia momentu onean dagoela esaten duten arren, langabeziak ez du behera egiten...

- Egia esan, lanpostu asko sortzen ari dira, baina lan merkatura heltzen den gero eta jende gehiago dago. Ekonomiak txarrerera egitekotan arazo aldi baterako lanekin gertatu daiteke, bestela egitura nahiko sendoa da. Zentzu horretan, kontratu iraunkorarekin aurrerapausu bat eman duguna baina gaur egungo egoerak denbora batez jarraituko du eta lan gehiago sortuko da oraindik.

- Sindikatuek lan erreforma kritikatu izan dute...

- Gai zaila da hori...



1996ko martxoan Merkatal Ganbarak Berasategi Gipuzkoako enpresa-gizon onena izendatu zuen.



Zazpi enpresa TTT taldean

Javier Berasategi 1938an jaio zen Legazpin eta 18 urte zituela bertako Patricio Echevarria enpresan administrari lanetan hasi zen. 1960ko hamarkadaren hasieran, eta "Barreiros efektoa" aprobetxatuz, TTT lantegia (Temperatura, Tiempo y Transformacion) sortu zuen beste lagun batzuekin batera. Barreiros Pegaso kamioien konstruktorea genuen eta "Barreiros efektoa" delakoak automobilen inguruko industria laguntzailearen egokitzea eskatu zuen. Kontestu horretan sortu zen TTT eta enpresa denborarekin hazten joan da. 1972an elkarte anonimo modura eratu zen eta gaur egun hainbat enpresa biltzen dira TTT taldean: lontech (gaineko tratamenduak) eta Adi (tratamendu bereziak), biak Irunen; Kronitek, Aretxabaletan; Goiko, Zumarragan; TTT ardatzak, Legazpin; eta lkan (artezketak) eta TTT, azken bi hauek Bergaran kokatuak. 125 langile dira taldean (horietatik 75 Bergarako lantegian), 1.500 milioi pezeta inguruko fakturazioarekin. Orain arte Bergarako lantegiko gerentea izan bada ere, gaur egun TTT taldeko presidentea dugu Javier Berasategi. Iazko martxoan Gipuzkoako Merkatal Ganbarak Gipuzkoako urteko enpresa-gizona izendatu zuen eta aurreko astean Empresa XXI aldizkariak, Euskal Telebistak eta Euskadiko Kutxak ematen duen euskal enpresa-gizon onenaren saria jaso zuen Bilbon.

Kontratu fijo batzuk badauzkazu eta enpresak ez badu aurrera egiten kontratu horiek ezin dira eza-batu eta enpresak itxi beharra dauka. Kontratu malguago batzuk izateak onenek lan egiteko aukera ematen dizu eta momentu txarretan ez dago enpresa itxi beharrik.

- Eta zer deritzozu Frantzian proposatutako 35 orduko lan astea-ri?

- Nik larunbat arratsaldeetan lan egiten zen garaia ezagutu dut, baina gaur nagusitzen den gizarte ongizatea bide horretatik doa. Argi dago

lan astea gutxitzen joango dela piskanaka-piskanaka, baina ez dakit neurri horiekin lanpostu berriak sortuko diren.

- Zela ikusten dituzu azpiegiturak hobetzeko Eibar-Gasteiz bezalako proiektuak?

- Herrialde guztietan azpiegitura onak edukitzea ezinbestekoa da eta hemengo industriari begiratuz oso ondo etorriko da. Ez dut gehiegi azertu alternatiba ezberdinak, baina badirudi peajea ordaindu beharko dela.

- Eta Guggenheime-aren aurrean, zein iritzi daukazu?

- Ez naiz probintzialista. Euskalduna naiz eta Euskal Herrirako onena nahi dut. Museoa ez dut gaizki ikusten, ezta Monneoren kuboak ere. Historian zehar beti izan dira honen moduko saltoak eta, nire ustez, honekin salto kualitatibo bat emango da.

- Bukatzeko, zeintzuk dira etorkizunera-ko erronkak?

- Lanean jarraitu eta merkatuan sortzen diren ideia berriak aztertzea, hori da nire enpresa filosofia. Badira gure taldean beste enpresa batzuk sortzeko ideiak eta 2000

urterako fakturazioa bi-koizteko asmoa daukagu. Euskal Herriari dagokionez, lanbide heziketako zentruak aprobetxatu behar ditugu, hemen FP2 egiten dutenak oso ondo gertatuta heltzen direlako lan merkatura. Eskolatik irten bezain laister lanean hasten dira, jende horrek ez du langabeziarik eza-gutzen. Preparazioa baloratu egin behar da. FP2arena Euskal Herrian dugun abantaila konpetitiboa da. Petrolio potzurik ez daukagu, baina langile bikainak bai, horiek dira gure lehen-gaiak.



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK

- APAINKETARAKO PINTURAK
- ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa: 76 10 65, faxa: 76 11 40

Osasuna

Estetika haginetan

- Zein kezka izaten dute bezeroek estetika-ren inguruan?

- Haginei dagokienez, estetika modan dago aspaldi honetan. Jendeak irribarre zoragarriak eta hagin zuri-zuriak ikusten ditu aldizkarian edota telebistan eta horrelako irribarre eta hagin eske etortzen zaizkigu. Egia esan, ez dira ezinezko gauzak eta nahiko errez eta merke lor daitezke. Estetikoki haginek inportantzia handia daukate.


- Zeintzuk dira arazo nagusiak estetika-ren ikuspuntutik?

- Alde batetik hagin zuriak, *carillen* beharra izatea, eta azkenik, pieza-ren baten falta izatea.

- Zuriketa arazoak zergatik izaten dira?

- Orain dela 20 bat urte katarroa osatzeko tetraciclina izeneko medikamentu bat ematea oso ohizkoa zen eta horren erruz jende askok ez ditu hagin zuriak. Baina zuriketa lortzea posible da. Horretarako gel batzuk erabiltzen dira eta horiekin lo egin beharra dago; bere neurriko molde bat

egiten zaio pazienteari eta 6-8 bat gauetan gela-ekin batera erabiliz gero, haginek beste kolore bat hartzen dute, oso metodo efektiboa da eta gainera ez dauka efektu kaltegarririk. Ez da tratamendu batere deserosoa eta etxean egiten denez, askok dentistari izaten dioten beldurra gainditzen dute. Bestalde, produktu hauek ez dira farmazietan sal-zen.



JON VALERA
(Bergara Hagin Klinika)

- Zelako emaitzak lortzen dira?

- Zenbait kasutan ez da zuriketa perfektua lortzen. Kasu horietan *carilletara* jo beharra dago.

- Zertan datza tratamendu hori?

- Portzelanazko atzazkal fin moduko batzuk lirateke. Haginen ageriko

zatian oso kapa finak pegatzen dira, horretarako hagina zertxobait gastatu behar da, milimetro bat edo gutxiago behar bada. Metodo hau gero eta gehiago erabiltzen da eta hemendik urte batzuetara ezagunagoa izango da oraindik. Ordubeteko bi saio nahikoa izaten dira normalean eta hagin arteko separazioak, apurtako piezak edota hagin-estetika arazoak konpondu daitezke. Orain dela gutxira arte tratamendu honek ez zuen garrantia askorik ematen baina gaur egun ia erabateko ziurtasuna ematen du eta hori dela eta garestitu egin da piskat. Hala ere, ez da Hollywoodeko izarrei mugatutako tratamendua.

- Eta pieza-ren bat falta denean?

- Edozein pieza ordezkagarria da gaur egun. Oso erabilia da jende askori falta baitzaio pieza-ren bat edo beste. Lehen zorroak urrezkoak izaten ziren eta gutxi batzuen esku egoten zen piezak aldatzea. Gaur egun, berriz, portzelanazkoak dira (*carillak* ere bai) eta askoz ere merkeagoa eta estetikoagoa da. Gaur egungo soluzioak oso errezak dira eta kasuen %95 konpontzen dira. Estetika arazoek gero eta garrantzi handiagoa daukate jendearen artean.

“Estetikak gero eta garrantzia haundiagoa dauka; soluzio errezak eta merkeak lortzen dira”



Estetika kontuko arazoak modu errezean konpontzen dira. ARTXIBOA



IPAR CENTER

Bergarako gasolindegia aurrean
Tf. 76 04 43

Sekulako eskaintza

%50 eko deskontua
polar, txandal eta sudaderetan

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrek kamiseta sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiatu koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismo



kamiseten letrak, zenbakia edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulak: boligrafoak, metxeroak, gornak, agendak...

San Lorenzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

kontuola...

Antzuolako hamabostekaria. 4 zenbakia, 1997-10-24

Gero eta biztanle gutxiago

338 pertsona joan dira herritik azkenengo hamar urteetan

Bergara, Zumarraga, Oñati eta Legazpi dira antzuolarrek bizitzeko hautatzen dituzten herriak. Azken hamar urteotan Antzuolatik alde egin duten biztanle gehienak Bergaran bizi dira; hala ere, badira euren sorterrira itzuli diren asko eta asko; 1986tik, 62 lagun joan dira Euskal Herritik kanpora.

Azkenengo hamar urteetako erroldako datuen arabera (1986-1997), 338 pertsona joan dira herritik. 1991. urtera arte 50 bat pertsonak utzi zuten Antzuola eta 1992tik aurrera, kopurua igotzen joan da urtetik urtera.


1996an egindako errolda ikusita, 30-55 urte bitarteko 144k alde egin dute herritik; era berean 18tik 30 urtera artekoak ere asko izan dira, 117 pertsona hain zuzen ere.

Nora joaten dira antzuolarrak?

Gehienak Bergarara joaten dira, 107 pertsona joan baita bertara. Zumarragara ere antzuolar dexente joan da, 40 pertsona, hain zuzen ere.

ANTZUOLATIK NORA:

Bergara	107
Zumarraga	40
Urretxu	14
Oñati	11
Legazpi	10
Zarautz	10
Araba	12
Bizkaia	13
Nafarroa	8
Euskal Herritik kanpora	62



- 1997an, oraingoz, 29 lagun joan dira herritik.

ANTZUOLATIK ALDE EGITEKO ARRAZIOIAK

Antzuolatik alde egiteko arrazoiak jakin nahian, herritik joan direnetako batzuekin egon gara. Zergatik joan zara Antzuolatik? Horixe da Ritxar, Enkarna eta Piediri galdetu dieguna.



Ritxar Cuevas

Amak eta etxia erostia bihar zebeñ baiña Antzuolatik jun biharra euki giñuan etxebizitzak karuak zirelako eta Bergaran kondiziño hobiak zerelako etxebizitzak lortzeko.



Enkarna Terrero

Gehien bat umeengatik izan zen; eskolara joateko autobusak behar zituzten eta momentuan oso gaizki zegoen autobusen kontua; gainera, gizonak ere Bergaran lan egiten zuen.



Piedi Vargas

Ezkondurantz nintzenez etxea erosi nahi genuen eta Zumarragan aurkitu genituen Antzuolan baino etxe merkeagoak (babes ofizialekoak). Gainera, gizona ere Zumarragako da.

Ipuin kontaketa ikastaroa

Martitzen honetan hasi den Kontu Kontari ikastaroak azaroan izango du jarraipena. Rai Buenok, Oihulari Klowneko kideak, eskeiniko duen ikastaroa lau saiotan emango da, urriaren 21 eta 28an eta azaroaren 4an eta 11n.

Mendi irteerak

Arrola mendizale elkarteak bi irteera antolatatu ditu. Urriaren 26an Mendaurrea eta azaroaren 9an Opa-kua-Azazeta ibilaldia egingo dute. Azken honetarako izena ematea azaroaren 3an, astelehena, izango da Arrolako lokalean, 19:00etatik aurrera. Bide batez, Arrolakoek jakinarazi nahi dute mendi irteeren argazkiak jaso nahi dituztela mendizale elkartearen 25. urteurrenerako. Hortaz, argazkiak baldin badauzkazue antolatzaileekin egotea besterik ez duzue.

Argazki erakusketa

Gaur, sari banaketaren ondoren, zabalduko da oporretako argazki lehiaketara aurkeztutako argazkien erakusketa, 19:00etatik 20:30etara. Zapatuan eta domekan ere egongo dira ikusgai argazkiok Udaletxeko areto nagusian goizeko 12:30etatik 14:00etara eta arratsaldean 19:00etatik 20:30etara. Aukera paregabea herritarren zaletasuna ezagutzeko!

Mus Txapelketa

Eginek antolatutako Mus Txapelketaren kanporaketak izango dira asteburu honetan ere. Eguakitzean, urriak 24, Ongi Etorrin jokatuko dute 22:15etan eta zapatuan, urriak 25, 16:00etan Surpen. Azkenengo saioa Olalden izango da urriaren 31n 22:15etan. Antolatzaileek gogorarazi dute saio bakar batean parte hartu daitekeela.

172 sinadura auzoko konponketen alde



Ziburuen tamainari buruzko kexak ere izan dira.

Errekalde auzokoek 172 bizilagunen sinadurak aurkeztu dituzte udal-txean, auzoko arazoak konpontzeko eskaerarekin batera. Auzoko batzuen hitzetan, ekimen honen helburua "auzoan urteetan konpontzeke dauden arazoei irtenbidea bilatzea" da.

Auzoko ziburu, aparkaleku, potzu septiko, argiztapen eta abarrez dituzten kexak agertzen dizkiote alkateari. Bizilagun batek adierazi digunez "hasiera ba-

tean, arratsaldero umeekin auzoan elkartzen ginen ama batzuek geure artean kexatzen hasi ginen auzoaren egoeraz, eta azkenean, eskaera formala egitea erabaki genuen".

Udalaren erantzuna

Mikel Larrea alkateak dioenez, "harrituta gelditu nintzen sinadura horiek denak

ikustean, orain arte inork ez dituelako eskaerak horrela egin; hala ere esan beharra dago Errekalde konpontzeko proiektua lantzen dihardugula eta egingo dako eskaerak aurreikusten direla bertan". Alkateak, bestalde, auzokideei bidalitako gutunean, Udalak Errekalde auzoari buruz eman dituen pausoak azaltzeko prest dagoela adierazten du. "berba egiteko gertu nagoela azaldu nahi diet gutunean".



Nafarroa Oinez 97

Goizeko 08:00etan irtenda, bi autobus joan ziren domekan Tafallara, Nafarroa Oinezera. Giro aparta izan zela komentatu dute bertara joan zirenek.

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98

**GOROSTI
Taberna**

☎ 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi, 21 ANTZUOLA
Tf.: 72 30 05
Billegia: 78 70 40

Isabel Martin, futbol taldearen *amapuntakua*

Goxokiak, bonboiak, patata tortilak... zer ez die eramaten bere mutilei Isabelek? Hamabostero, taldeak etxean jokatzen duenean, Estalako futbol zelaira igotzen da Isabel, bere poltsa eta guzti; joan zen zapatuan ere, lau bat tortila, txorixua, ardoa eta gainera bi txanpan botila eraman zituen; baina Isabelek asteroko partiduaren zain egoten dela aitortu digu: "asko gustatzen zait eta jendea partiduetara joan dadila gustatuko litzaidake".

Jokalariek ere eskerzten diote berak gustora egiten duen lana eta joan zen zapatuan, gol bat eta lora sorta oparitu zizkioten bere urtebetetzeagatik. Hiru denboraldi daramatza

Isabelek aurten erregionalean jokatzen duen taldea animatzen: "ia afonika ere galditu naiz, baina mutilek merezi dute; partidu ostean denok elkartzen gara meriendatzen eta beste herri bateko jokalaria batek esan zidanez, hona galtzera etortzeak ere merezi du, meriendagatik".



Isabel, lore-sorta oparitu ziotenean.

Gobernu Batzordea ez zen egin

Udaleko Gobernu Batzordearen bilera egin gabe gelditu zen joan zen martitzenean, urriaren 7an. Udaletxeokogogoratzten dutenez, ez da horrelakorik gertatu azkenengo urteetan, baina joan zen eguneko Batzordea bertan behera gelditu zen, quorum ezagatik. Gobernu Batzordea lau zinegotzik osatu arren, hiru nahikoa dira bilera egiteko; hala ere, Herri Batasunako Mahai Nazionaleko kideen aurkako epaiketa dela eta, herriko HBk udal administrazioarekin ez kolaboratzea erabaki zuen epaiketak dirauen bitartean. Ondorioz, alderdi horretako batzordekideak alde egin zuen eta, beste batzordekide bat ere falta zenez, ezin izan zen egin bilerarik egin, bi zinegotzi baino ez baitziren gelditzen.

Cheren ideiak 30 urte eta gero

Che Guevararen heriotzaren 30. urteurrenean, Antzuolako ZUTIKek Jorge Fernandez, Kubako Kultura eta Hezkuntzaren garapenerako Fondoko zuzendaria, gonbidatu du urriaren 30ko hitzaldiara. Argazki erakusketa eta 12 minutuko bideo bat ikusteko aukera ere izango da.

GURE ARTIAN

Zergatik aukeratu zenuen Antzuola bizitzeko?



**Marije
Zubimendi**

Antzuolar batekin ezkondu nintzen; berak hemen lan egiten zuen eta nahiko argi neukan Antzuolara etorriko ginela. Gainera hamar urte ondoren ohitu naiz hona.



**Yolanda
Miner**

Gizonak Antzuolan lan egiten zuen eta kuadrilan aspalditik ateratzen ginen Antzuolan; asteburuero hemen egoten ginen eta integrituta sentitzen nintzen.



**Aitor
Belastegi**

Ezkondu nitza-nian pixu billa ibilli giñan Antzuolan eta Angiozarrren eta azkenian hemen topau giñuan. Gaiñera andriak Antzuolan geldittu nahixago zeban.

**LEKU-BERRI
MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 76 60 94

LARREA

TABERNA

**Kalebarren, 17
ANTZUOLA**

**IOSEBA AZKARATE
Aluminio arotza**



- Zubi termikoak
- Hausturak
- Forma-seriea eta 42-forma
- P.V.C.
- Mota guzietako irristagailuak
- Bulego ibixiturrak
- Barandak
- Eta abar

ATE-AUTOMATIZAZIOA
Tf. 76 64 08 Antzuola

Olatak eta Liberamiak Domusantu egunean

Azaroak bat, Domusantu eguna; hildakoen eguna; animen eguna... Nork ez ditu gogoratzen jadanik gure artean ez dauden senitartekoak azaroaren batean? Eliza katolikoak egun horretan gogoratzen ditu hildakoak; baina orain ez dira domusantu egunak lehen zirena. Gaur egun ez zaizkie olatak eskeintzen hildako senitartekoei; ez da prozesiorik egiten eta ez dira "Liberamiak" kantatzen -diruarekin ordaintzen ziren kantak-. Gogoan dauzkate horiek denak Simon Artolazabal eta Serapia Larrañagak.



"A bade bakoitzak hiru meza emoten zittuan Domusantu egunian". Horixe dauka gogoan Simonek; hiru apaiz ziren Antzuolako parrokan, eta 1945. urtera arte gutxi gora be-

hera, Domusantu eguna elizkizunetz betetako eguna izaten zen. Goizetako meza izaten zen "familixa bakoitzak ipintzen zeban trapu beltz bat sepultura gainian eta han ipintzen zien argizarioak; gero abadia etortzen zan eta sepultura danetan emoten zittuan errespontsuak, Pater Nosterrak, familixakuen hildakuen alde". Arratsaldean, berriz, prozesioen txanda izaten zen; Simonek dioenez "elizpetik bueltia egitten zan, goiko atetik erten eta beheko atetik sartzen zan". Prozesio horretan, gainera, beste ohitura bat ere bazen; dirudienez garai batean hildakoa beheko atearen aurrean ipintzen zen, elizara sartu beharrean; hori dela eta, Domusantu egunean, prozesioak zirauen bitartean, han bertan geldialdiak egiten ziren, "abadiak botatzen zittuan han Pater

Nosterrak, lehenengo kalia hil dien animen alde erresponso bat, gero Lizarragakuen alde beste bat, Basaldekuen alde beste bat... hola auzo danen alde; eta meza nagusixan be egitten zan auzoka Pater Nosterrena".

Abestiak ordaindu egiten ziren

70 urte daramatza Simonek organua jotzen eta oraindik ere gogoratzen ditu Domusantu egunean abesten ziren kantu bereziak; "egun hortan aprobeztatzen zan errespontsuak egitteko eta Liberamiak pe kantatzen zien; 5-6 bat diferentziak kantatzen zien, 3 eta 4 aho-tsetara, segun dirua izeten zan eta gero pezeta bana edo biña emoten jakon

kantore bakoitzari". Horri buruz kalean kantatzen zen beste abesti batekin ere gogoratzen da Serapia: "honek ba dik, honek ba dik, kanta dezagun gogotik, honek ez dik, honek ez dik, kendu dezagun bistatik".

Olatak hildakoei

Garai hartan ez zen dirua gaur bezalaxe erabiltzen. Ohiturak dioenez, Domusantu egunean, olatak ematen zitzaizkion urtearen barruan hildakoren berri izan zuen familiari. Serapiak kontatu digunez, olatak, "hiru puntako ogixak ziren eta egun horretan limosna moduan egiten ziren eta gero errespontsu eman zianian olatak jasotzen zien; pater noster edo rezo bat zan olata bakoitzeko". Olatak apaizak jasotzen zituen eta gero erreal baten truke saltzen zituen. Serapiak gogoratzen duenez, olatei itxura hori bea emateko "baserriko ogixakin egiten ziren eta arrautzia emoten jakon gainetik brillua etaratzeko". Simonek dioenez, "abadiak sakukarak jasotzen zittuen".

■ ■ ■
"Abade bakoitzak hiru meza emoten zittuan
Domusantu egunian" SIMON ARTOLAZABAL
■ ■ ■



Simonek 90 urte beteko ditu datorren martitzenean, urriak 23



**MUEBLES
IGEA**

Zurrategi plaza, 4 behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 78 71 80

Sukalderako eta
bainurako altzariak

Rosa Simon

Rigoberta Menchu fundazioko kidea

Mugen Gainetik gobernu kanpoko elkarteak aste osoan zehar antolatutako ekitaldien barruan Rosa Simonek, Guatemalako Fundacion Rigoberta Menchu elkarteako kidea, joan zen urtean gobernuak eta gerrilak sinatutako bake akordioen ondoren bizi duten egoerari buruz hitz egin zuen. Simon indigenen hizkuntzak berreskuratzeko lanetan dabil eta datoren astera arte Euskal Herrian izango da.

- Zer egoeratan daude Guatemalako indigenak?

- Indigenen egoera beti izango da zaila. Duela urtebete Guatemalan sinatutako bake akordioa ez da arazo guztiak konponduko dituen barita magikoa. Bestalde, egoera nahiko lasaian gaude, bake akordioari esker gauzak proposatzeko momentuan gaude eta. Leiho bat zabaldua izango balitz moduan ari gara lanean.

- Joan zen urteko abenduan Guatemalako gobernuak eta gerrilak bake akordioa sinatu zutenetik zerbait aldatu da?

- Gobernuaren aldetik badago aldaketa txiki bat, baina oso txikia oraindik. Gutxienez "Comisiones Paritarias" izeneko enketarekin Guatemalako hezkuntz sistemaren erforman parte hartzeko aukera izan dugu. Era berean, Guatemalako konstituzioan egin daitezkeen aldaketak aztertu ditzakegu.

- Zeintzuk izan behar dira aldaketa horiek?

- Bake prozesu bat eratu nahi bada, guztiak izan behar dira aktore prozesu horretan. Bake prozesu batean, hasteko, jakin behar duzu zure bizilaguna gizaki bat dela eta zure eskubide eta betebeharrak dituela. Orduan, inor ez da bestea baino gehiago eta guztiak dira herri bereko biztanle.

- Zer egin behar duzu Euskal Herrian?

- Mugen Gainetik gobernu kanpoko erakundeak gonbidaturik etorri naiz eta eurek antolatutako hitzaldietan hitz eginen



"Ikastetxeen %5ean besterik ez da erabiltzen gure hizkuntza".

parte hartuko dut hurrengo azaroaren 2ra arte.

- Euskal Herriari buruz bazenekien zerbait?


- Zerbait bai, eta uste nuen hemen guztia zela polita eta ez zegoela inongo arazorik; baina hona etorritakoan eta jendearekin berba egingakoan ikusi dut hemen ere badirela arazoak eta prozesua oso zaila dela. Gainera uste dut guk bizitako prozesuarekin badietuela antzekotasunik hemen bizi duzuen gatazkak. Halere, uste dut egoera ez dela Guatemala-koa bezain larria, egia da oraindik Euskal Herria beste estatu baten menpe

dagoela, baina badu bere gobernu, euskara unibertsitatean erabiltzen da eta, esate baterako, Guatemalan indigenen hizkuntzak bakarrik hezkuntzako lehenengo hiru mailetan erabiltzen dira.

- Zenbat hizkuntza dituzue Guatemalan?

- Maia jatorrizko 21 hizkuntza ezberdin ditugu eta ikastetxeen %5ean besterik ez da erabiltzen gure jatorrizko hizkuntza. Etorkizunerako erronka nagusia hizkuntza horiek hezkuntz sisteman sartzea izango litzateke, baina ez daukagu nahikoa laguntza politiko edo ekonomiko.

"Bake prozesu batean, hasteko, jakin behar duzu bizilaguna gizaki bat dela, eta zure eskubide eta betebeharrak dituela"



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Iturkintz Berri


INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

Jubilatuen Hamabostaldi Kulturala dela eta, zer egin daiteke jubilazioan?




Patxi Laskurain

Zerbait egiten jarraitu behar da, lan bat edo beste zerbait. Hobbyak lantzeko aukera ona ere izan daiteke: eskulanak, ortuak..., geldi egon ez, behintzat.



Blanca Iturbe

Gure lokalera etortzea asko gustatzen zait, arratsaldean lagunekin egotera. Eskulanak eta horrelakoak ere egoten dira eta ondo daude aktibitate horiek.



Martin Inza

Orain egiten duguna. Jubilatuak lokalean elkartu, lagunekin egon, aktibitate ezberdinetan parte hartu..., ni konforme nago horrekin.



Erritxe Barrenetxea-Arando

Gu denbora pasatzera etortzen gara lokalera, etxean nahiko lan egiten dugu eta. Gantxiloa, deporte piskat etab. egitea ondo dago. Eta lagunekin jokuan egitea ere bai.



Tomas Eguren

Nik denei esaten diet mendian dexente ibiltzeko. Perretxikotara joan, oraingo sasoiak gaztainak batu... Gorputza zaindu eta ambientea jarri inportanteena.



Romana Uribealgo

Gure lokalera etortzean ilusioa mantentzen dugu, lagunekin egoten gara hemen eta. Etxean lan egin eta lagunekin egon eta gero, pozik etxera.

Ezkontzetarako jangela egokia.

Parkin partikularra, terraza eta lorategia.

Lasa Jatetxea,
Bergarako sahiesbidearen
hegoaldeko irteeran.
Telefonia, 76 10 55
Faxa, 76 20 29



Monumentu nazionala


Lasa
j a t e t x e a

ASTEKO PROBAKETA-MENUA

Ahate-gibelezko aspik trufatua

~
Onddo-papillotea
berro-saltsarekin

~
Painduak itsaskiz beteta

~
Orein errea gaztaina-pure, sagar
eta andere-mahats jelearekin


~
Almendra-gozokia

~
Ogia eta 3. urteko ardoa (1/2)
edo ur minerala

~
Kafea eta petit fours-ak

~
5.300 pezeta + %7 BEZa

~
Dena etxean egin



AD. Amigi Desmemoriado

1985ean Legebiltzarrean diputatu bakarra genuen, botoen %4 baino ez. Hamabi urte beranduago hasierako diputatu bakar hark beste 18 lagun izango ditu ondoan. Lau bototatik bat jaso dugu, 115.000 boto eta 6 diputatu gehiago.

Iazko hauteskunde espainiarretan botoen %13,1ekin 2 diputatu lortu genituen. Igandean lortutako botoekin, berriz, 5 diputatu izanongo genituzke Kongresuan.

España kezkatzen hasi da.

Alderdi espainolak beldurtzen.

Hauteskunde gauean, Juan Jose Lucas Gaztela-Leongo (PP) presidenteak hautes legearen aldaketa eskatu zuen, alderdi nazionalistek eragin gutxiago izan dezaten. Extremadurako (PSOE) presidente Juan Carlos Rodriguez Ibarra antzeko eskaera egin zuen "nazionalistek Espainia gobernatzen lagundu ezear".

Joaquin Almunia onartu egin du gure hazkundera ez dela "berri ona".

Horrela jarraituz gero, On Manuel erretiratu baino lehenago nazionalistok, Blokea hausten ez den bitartean, ezustekoa emango dugu: Galiza Portugal da? Galiza Euskal Herria da? Euskal Herria España da?

Zer gara gu? Gailegoak, euskaldunak, espainolak ala portugesak? Euskal Herrian Blokerik? Euskal Hintxak ez bada!

Gora Galiza Ceibe!!

Joxe LAZKANO



Sinbolismo hutsetik harantz

Urte osoa, baina batez ere ekainaren hasieratik urriaren bukaera arte asteburu guztiak euskara eta euskal kulturaren aldeko ekimenez beteak ditugu. Araba Euskaraz, Ibilaldia, Herri-Urrats, Kilometroak eta Nafarroa Oinez; Euskal Eskola Publikoaren eguna, AEK eguna, Bertsolari Txapelketa Nagusia... ziur nago bat baino gehiago gelditu zaidala aipatu gabe. Denak, salbuespenik gabe, arrakastatsuak. Euskaldun eta euskaltzale orok erantzuten dio euskara eta euskal kultura suspertzearen erantzunkizunari.

Euskararen aldeko apostu egin dugu. Jaietara joatearekin ez gara konformatzen. Administrazioaren aurrean euskara exijitzen dugu: funtzionario euskaldunak, inprimaki eta idazki guztiak euskara elebakarrez; kalean ahal beste funtzionatzen dugu euskaraz.

Horraingo heldu gara. Ez da gutxi. Ezta nahikoa ere.

Eman behar dugun hurrengo pausoa, aurreko borrokekin konparatuta ez da hain handia. Edo behar bada bai.

Esan dezakegu, gure eremu indibiduala, pertsonala euskaldun dugula. Gure bizitzan aldatzerik genuena euskaldundu dugula. Gure eremu soziala euskalduntzeko txanda heldu da. Gure eremu soziala inguruan eta gurekin bizi direnek (eta ez soilik etxean) osatzen dute.

Euskara ikasten ari den zenbat ezagutzen dugu? Ulertzen dutenak baina hitz egiten ez dutenak, zenbat? Euskara erabiltzen hasteko gure laguntza behar dute. Zenbat, euskara ikasi beharko luketena? Gure laguntzarik gabe ez dute egingo.

Gure ingurunean ditugunak, ondo-ondoan ditugun ikaste-prozesuan parte hartu behar dugu. Euskara jakitera heltzeko, eta jakitetik erabiltzera dagoen bideari ekiteko.

Euskal Herriaren euskalduntze prozesuan betebeharrak guztiei erantzun diegu. Eta erantzungo diegu datozen guztiei.

Ez dut pentsatzen erraza denik, zailegia ere ez. Eta horretarako gaitasuna ez zaigu falta.

Nora PALMITANO

IGARTUA DOKTOREA
otorrinolaringologoa

Kontsultategi
mediko berria
Bergaran

Eztarria, sudurra, belarria.

Barrenkalea, 35 1-ezk.

☎ 76 70 91

Astelehenetik ostiralera 16:00-20:00

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

ZUBI-BERRI



JATETXEA

Lehen platera:
Entsalada edo
Fritoak edo
Nahaskia

Bigarren platera:
Txuleta edo
Arraina edo
Piper beteak

Postrea

Kafea

Etxeko ardoa

2.300 PTA

ASTEBUKAERETARAKO
MENU BEREZIA

Koadrilentzat
ezin aproposagoa!

San Anton auzoa Tf. 76 30 24



■ **Kubako musika Santa Marinaran**

Kubako "Entrevoques" kamara abesbatzak kontzertua eskeini zuen aurreko eguakitzean Santa Marina parrokan: Digna Guerraren zuzendaritzapean, kubatarrek euren errepertorioko kantu ezagunenak abestu zituzten bertaratutako 180 bat lagunengozamenerako, nahiz eta emanaldia uste baino laburragoa izan 50 minutu inguru iraun zuen kontzertuan, "Entrevoques"ek **Monteverdi, Brahms, Gershwin**

edota Matamoros konpositoreen piezak interpretatu zituen. Anekdotan moduan, azkenean **ez zen emanaldirako sarrera kobratu** Xabier Azkoitia Santa Marinarako parroko berriak horretarako baimenik eman ez zuelako. San Pedron izaten diren emanaldi guztiak ere debaldekoak izaten dira. Bestalde, kontzertua amaitu bezain laister Udazken Kulturalerako antolatzaileek kubatarrek Pertxa elkartearen afaltzera gonbidatu zituzten. Hurrengora arte!!



■ **Umorezko lana**

Mikel Laskurain aktoreak parte hartu zuen atzo **Hika** antzerki taldearekin Pasaiko Umorezko Antzerki Jaialdiaren zabalte ekitaldian. Hika taldeak "**Hau komeria!**" izenburuko komedia musikala antzestu zuen. Agurtzane Intxaurregak idatzitako lan hau bi kantariren (Miren Gojenola eta Agurtzane bera) emankizunean oinarritzen da. Laskurainek "Patxi" aretoko elektrizistaren papera lantzen du eta, bi kantariek aurkezlerik ez izatean, "Patxi"ri aginduko diote aurkezpen lana egitea. Igandean, urriak 26, Irungo Gazte Antzerkiaren XIII. Erakustaldian izango dira Hikakoak eta azaroaren 15ean Azpeitiko Zelaitxo antzokian, Euskadiko XV. Euskal Antzerki topaketetan. **Oihulari Klownek** ere Azpeitiko jaialdian hartuko du parte abenduaren 12an "Zai... beti zai" bere azken lanarekin.

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12



■ Denboraldi amaierako afaria

Lokatza ziklismo eskolak denboraldi amaierako afaria egin zuen zapatuan Altzasu elkartearen. Bertan 60 bat lagun bildu ziren, tartean taldeko txirrindulari, entrenatzaile eta laguntzaileak eta korredoreen gurasoak. Afalostean Lokatzako arduradunek amaitutako denboraldiaren balantzea egin zuten. Aurten **jeitsi egin da taldeetako txirrindulari-kopurua** eta, emaitzei dagokienez, kadeteak jubenilak baino finago aritu dira urtean zehar. Datozen egunetan neguko prestaketari ekingo diote hurrengo denboraldiari begira. Lokatzak dozena bat lasterketa antolatzen jarraituko du eta, horrez gain, bigarren aldiz, **Euskal Bizikletako etapa bat Bergaran amaituko da**. Euskal Bizikleta maiatzaren 29an helduko da Ibargarai kalean jarriko den helmugara. Bestalde, Lokatzako zuzendaritzan erreleboa izango da, **Mikel Larrañagak Jose Luis Kortabarria "Kaxeta"** ordezkatuko baitu presidente postuan. Era berean, zuzendaritzako guztiek Lokatzarekin kolaboratzen jarraituko duten arren, piskanaka-piskanaka arduradun eta entrenatzaileei erreleboa eman beharra ikusten dute. Ea entrenatzaile tituloa dutenak eta txirrinduzaleak animatzen diren...



Zertan dihardute ba?



Eli Mendiara 33

urteko zumarragarra Musika Eskolako zuzendari berria dugu irailetik, Alberto Laskurain ordezkatuz. Berarekin batera, Cristina Larrañaga (ikasketa burua) eta Marije Ugalde (idazkaria) izango dira zuzendaritza taldean. Eli Mendiara 11 urte daramatza Musika Eskolan, pianoa eta hizkuntza musikaleko klaseak emanez. Bere hitzetan, "eskolan obra batzuk egin diren arren, oraindik hainbat hobekuntza egitea komeni da eta horretarako guztion laguntza beharrezkoa da. Ikasle kopuruaren aldetik pozik gaude emaitzekin".

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urate, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxes: 76 04 77

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik




Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

Ane Laskurain

Majisteritza eta administraritza ikasketak egin zituen osintxuar honek hiru urte daramatza Xipizaro ludotekan lanean. Aurtengo ikasturtean 3tik 14 urtera bitarteko 45 neska-mutiko ari dira ludotekan astebarruan eta beste 15 zapatu goizetan.

- Zer esan nahi du Xipizarok?
- Haurtzaroa, uste dut Iparraldean erabiltzen den hitza dela.
- Zure haurtzaroko jolas bat?
- Gorde-gordeka.
- Txikitako jostailurik gordetzen duzu?
- Badauzkat muñeka batzuk apurtzeke oraindik.
- Orduko oroitzapen bat?
- Osintxun errekan jolasten zein ondo pasatzen genuen.
- Bihurria zinen txikitan?
- Ni bai, oso.
- Egin duzun azken umekeria?
- Asko egiten ditut...
- Hurrekin lan egiteko beharrezko kualidatea?
- Haurrak ondo ezagutzea, zela jokatzeko duten jakitea.
- Zer da gaurko hurrei gehien gustatzen zaiena?
- Jolas aktiboak.
- Arrakastatsuenak, zeintzuk?
- Futbolina, bilarra, futbola,



“Hurrekin lan egiteko neska-mutikoak ondo ezagutzea beharrezkoa da. Jolas aktiboak izugarri gustatzen zaizkie. Badauzkat haurtzaroko muñeka batzuk gordeta oraindik”

- gorde-gordeka eta balukoia.
- Haurrengan gehien apreziatzen duzuna?
- Egiazaleak direla.
- Bihurriagoak zeintzuk?
- Mutilak.
- Zenbat haur izatea gustatuko litzaizuke?
- Pare bat tope.
- Mutil bati zein izen jarriko zenioke?
- Aitor.
- Eta neska bati?
- Maite.
- Adinik politena, zein?
- 18-23 urte bitarte hori niretako.
- Hobby bat?
- Kirola egitea eta dantza.
- Kirol bat?
- Tenisa.
- Jarraitzen duzu dantza sueltoan?
- Trikitixa ez, baina saltsa ikastaroetan eta, banabil.
- Zenbat ordu egiten duzu lo?
- Behar baino gutxiago, zazpi bat.
- Sukaldari ona zara?
- Ez, ez zait sukaldea gustatzen.
- Janari bat?
- Oilaskoa.
- Eta jan ezin duzun beste bat?
- Alkatxofak.
- Etxean nork egiten ditu etxeko lanak?
- Niri tokatzen zait...
- Urtaro bat?
- Uda.
- Bizitzeko leku bat?
- Plaia gertu duen herri bat.

J. A. UNZURRUNZAGA



argazki erakusketa

NAHIKARI taberna
Masterreka, 20 Tf. 76 57 71



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

ETXEBIZITZA

Etxea salgai Osintxun.
☎ 76 36 61 (arratsalde).

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150 m².
☎ 76 11 89.

Pisu amueblatua salgai.
☎ 76 49 30 (gauetz).

Pisu salgai Frontoian. 160 m².
☎ 76 24 42.

Pisu salgai Martokon.
☎ 76 45 27.

Pisu alokairuan Bilbon, Deustuan. ☎ 76 13 14.

Garajea alokairuan Ibargarain. ☎ 76 33 76.

Pisu salgai Aranerrekan.
☎ 76 42 65 (gauetz).

Lokal komertzialak alokairuan Zurraderon eta San Pedron. ☎ 76 57 69.

Logela bat alokairuan (sukalderako eskubidearekin).
☎ 76 13 46 (Dorleta).

Lokala alokairuan Telesforo Aranzadin. ☎ 76 30 08.

Etxea salgai Zubiaurren.
☎ 76 64 88 (gauetz).

Pisu alokairuan Bergaran. ☎ 76 37 80 (gauetz).

Pisu salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

Garaje bikoitza alokairuan Zurraderon. ☎ 76 57 69.

Pisu bat alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 59 54.

DENETARIK

2. eskuko **motoaitzurra** erosiko nuke. ☎ 76 58 12.

Hozkailu berria salgai. Egoera onean. ☎ 76 70 86.

Ileapaindegia alokatzen da Bergaran. Prezio interesgarria. ☎ 76 56 85.

Botoidun akordeoia behar dut. 120 bajurekin.
☎ 76 07 79.

Renault 5 GT Turbo kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

Butanozko berogailua eta egurrezko kalefazio galdara salgai. ☎ 74 41 28.

Nikon FM2 kamara berria salgai. Rowi boltsa haundiarekin. ☎ 76 50 86.

Gasteizen pisua osatzeko ikaslea behar da.
☎ 76 41 59 (Iñaki).

Renault 4 kotxea salgai. Merkea. ☎ 79 23 69.

Idazmakina elektronikoa salgai. ☎ 76 39 14.

Arrantzako kainaberak salgai. Matxiategi 29, lehen pisua ezkerre.

"Zero-sette" soinu txikia salgai. ☎ (945) 27 44 26.

LANA

Haurrak zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. ☎ 76 24 33.

Gaztetxoei marrazketa librean laguntzeko prest nago. ☎ 76 34 83..

Kitarra klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 46 48.

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egiten ditu. ☎ 76 00 90.

Etxeko lanetarako edo atariak garbitzeko neska eskeintzen da. ☎ 76 13 46.

Haurrak edo zaharrak zaintzen ditut. ☎ 79 72 92.

Etxeko garbiketarako egingo nituzke. ☎ 76 13 46 (Dorleta).

Tabernaria eskeintzen da. ☎ 76 04 57.

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Pintura eta marrazki klaseak (Arte Ederretan lizentziatua). ☎ 76 03 83.

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. ☎ 76 70 40.

London-eko bed & breakfast batean lan egiteko neska behar da.
☎ 07 44 1718280057.

Majisteritza ikasle batek OHOk klaseak ematen ditu. ☎ 76 47 30.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 42 63.

Mate, fisika eta informatika klaseak. ☎ 76 46 03.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

LENDING SERVICE S.L.

Lending Service S.L.k emakumea behar du udaleko etxez etxeko zerbitzua egiteko.

Euskara derrigorrezkoa (2. maila).

Tf. 76 06 34 (Marisol).

**EGUZKITZA**

MENU BEREZIA:

Lehen platera
Entsalada mistoa
Tuterako kukuluak
Baba gorriak
Potxak almejekin
Esparragoak
Patea
Alkatxofa salteatuak
Berdura-menestra
Onddo-nahaskia
Hestebeteak aukeran

eta abar

Bigarren platera
Xerra patatekin
Eskalopea
Txuleta
Saiheskia
Baserriko oilaskoa
Mingaina saltsan
Buztana saltsan
Basurdea
Oilarra
Zapoa
Legatza albardatuta

eta abar

Berriz zabaldu dugu!
Zatoz gure menu berezia probatzera!

Postrea
Aukeran

Menuaren prezioa
1.450 PTA

Oharra: prezio honen barruan ez dago sartuta ez edaririk ezta BEZa (%7) ere.

Aranerreaka 30
Tf. 76 56 03



“Lehiaketetan txapeldun bakarra aukeratu behar da eta oso zaila izaten da onena zein den erabakitzea”

“Migel Sagastumeri ez zaio egin duen lana aitortu. Estilo propioa dauka eta akordeoilaria jotzen oso ona da”

MANU IZTUETA, AKORDEOILARIA

“Lehen trikitixa zaharrek bakarrik jotzen zuten, eta batez ere baserri giroetan”

Mitxelenarekin, Munduko akordeoi txapelduna izandakoarekin, akordeoia ikasten hasi zen 12 urte zituenean. Solfeo eta akordeoi ikasketak eginak ditu eta soinu handia jotzen hainbat plazatan ibilia da. Berakatz Band taldeko kidea izan zen eta gaur egun Alai taldean dihardu. 40 urte ditu.

- Gaur egun neska-mutiko asko dabil esku-soinua ikasten, baina zu hasi zinenen ez zen oso normala izango.

- Ez, nire edadeko neska-mutikoak beste saltsa batzuetan zebiltzan. Aitak animatuta hasi nintzen, trikitixaren eta akordeoiaren oso zalea zen eta beragatik ekin nion joteari. Niri neuri baino gehiago gustatzen zitaion aitari, ez dago dudarik. Egunero-egunero, eskolatik irten eta bizpahiru ordu ikasten ematea ez da oso atsegina, eta edade horretan gutxiago, gogorra egiten zitazaidan. Halere, gutxikagutxika instrumentuari gustoa hartu nion eta 17 urterekin han eta hemen jotzen hasi nintzen.



Gaur egun Alai taldean dabil, ezkontza banketeak alaitzen batez ere.

- Ze ezberdintasun dago esku-soinuaren eta soinu handiaren artean?

- Oso diferenteak dira, bai joteko moduari edo ikasteko teknikari dagokionez eta baita ateratzen duten soinuari dagokionez. Soinu handiak pianoarekin antzekotasun handiagoa dauka. Bestea, berriz, botoiduna da, zabaldu eta ixterakoan soinu ezberdina ateratzen du...

- Azkenaldian trikitixa asko zabaldu da gazte jendearen artean. Zer deritzozu horri?

- Oso ondo ikusten dut haur eta gazteek ilusio handiarekin ekin diotelako eta beste irteera bat eskaintzen zaielako. Gaur egun trikiti eskola eta trikitilari gazte asko daude. Lehen zaharrak bakarrik jotzen zuten eta batez ere baserri giroetan entzuten zen.

- Trikitixa txapelketetan epai mahaian aritu zara. Atsegin duzu lan hori?

- Ez larregi. Txapeldun bakarra aukeratu behar da eta askotan oso zaila izaten da onena zein den erabakitzea. Ni

Euskadiko txapelketan hasi nintzen orain dela zazpi bat urte eta gora-baherak izan ziren trikitixa zaharra edo tradizionala eta berria zela eta. Kep Junkerak irabazi zuen eta Joseba Tapia bigarren geratu zen. Txapelketa propioa izan zen eta batzuetan berriz ere ez zirela aipatzen keztuko esan zuten. Berriz ere ez da antolatzen baina Euskadi Irratiak hartu du antolatzekeko duna Trikiti pieza berria txapelketarekin; horretan ere epai mahaian aritu naiz eta herrietan antolatzen diren txapelketetan ere egon izan naiz.

- Gauza berririk ikusten da txapelketatan?

- Zeozer bai, baina ez asko. Nabarmendu daitezkeen artean Xabier Sainza, Letamendia beasaindarra aipatuko nituzke.

- Migel Sagastumeri “Urki” inguruko akordeoilaria onenetakoa da. Aitortu zaio meritua hori?

- Uste dut ezetz. Bere estilo propioa dauka eta oso ona da. Ez zaio beste besteko meritua aitortu bere lagunek eta inguruko koek bai baina kanpoko eta ez gehiegi.

Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. BAR CANALEJAS	12	4	19	11
2. MONGATXURRAK	10	5	18	9
3. AZPEITXI JATETXEA	10	5	18	13
4. PAGOMENDI	9	5	22	11
5. A ZE FLAXA ETXAGI	8	5	17	13
6. JAUJA OH ZEREZOS	6*	4	13	8
7. ARLOTEAK/OILAGORRA	4	4	5	8
8. ERROTAGAIN	4	3	7	6
9. ETXAGI	3	5	3	13
10. AGINASPI	3	5	11	29
11. BILDURBAREK OPEL/LAM	2	4	7	14
12. ORTZI	1	5	4	14

A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. EZINLEIKE	12	5	51	14
2. MRW	12	5	23	10
3. AGIRREBEÑA JATETXEA	12	5	19	11
4. SHAKTALE	9	5	16	6
5. ALDOKA MALDOKA	8	5	11	8
6. MANITOU	7*	5	20	4
7. MOSKIS	7	5	21	14
8. GANBARA ARI ARI	6*	5	12	12
9. INDARGORRI	4	5	10	19
10. POLIDEPORTIVO TABERNA	3	5	9	33
11. KAIXO	0	5	7	46
12. IGANDEKOAK	-3*	5	6	27

B multzoa


TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. SLO	12	5	16	12
2. AUTOBEREZI	10	5	25	14
3. ARTUSAMAK	9	4	25	12
4. AMOZKIBAR	9	4	15	14
5. JAKINA PT	6	5	18	15
6. KUSOAK	6	4	16	15
7. UVE BIKOITZA	6	5	13	16
8. BAYER	6	4	10	17
9. ERDIBITERRAK	4	4	11	13
10. TXIPIRON	4	5	10	20
11. AMILOTX	-2	5	7	14

C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. LA JUVE	12	5	25	6
2. UFALA	12	4	20	6
3. GUADALEST	12	5	23	9
4. FAC	9	4	21	8
5. ERI SIRIMIRI	7	5	17	16
6. MATXAKATEGI	7	4	11	18
7. BAR GANBARA	4	4	23	13
8. ETENGABE	4	5	8	10
9. KOMANDO PIPERRAK	3	4	7	16
10. LA PEÑA DML	0*	5	13	15
11. PATATUS	-3*	5	7	32

* KARNETAK EZ ENTRAGATZARREN PUNTUAK KENDU ZAIZKIO.

Jokoz kanpo



Oskar Jimenez

KAIXO

ZER MODUZ HASI DUZUE TXAPELKETA?

Oso gaizki. Jokatu ditugun partidu guztiak galdu ditugu. Bestalde, oso jokalaria gutxi gaude taldean.

JOKATZEN DUZUEN LEHENENGO URTEA DA, EZTA?

Bai eta esperientzia falta zaigu.

ZELAKO MAILA IKUSI DUZUE TXAPELKETA?

Nahiko maila ona dagoela uste dut.

FITXAKETARIK EGITEKO ASMOA DUZUE?

Bai, denetik fitxatu beharko dugu abenduan.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Manitou.

JOKALARIRIK ONENA?

Aitor Anton.

LIGA PROFESIONALEKO ZER TALDE GUSTATZEN ZAIZU?

Bat ere ez.

LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?

Raul.

ZER TALDEK IRABAZIKO AURTEN LIGA TXAPELKETA?

Real Madriderk edo Barcelonak.

ETA MUNDIALA?

Brasilek.

ZEIN DA ZUEN TALDEKO IZARRA?

Ander Ortigosa.

ZER POSTUTAN ESPERO DUZUE AMAITZEA?

Hurrengo itzulian fitxaketa berriki egiten baditugu, hobeto ibiliko garela uste dut.

EMAITZAK

PAGOMENDI-ARLOTEAK/OILAGORRA	1-3
ETXAGI-MONGATXURRAK	0-3
ERROTAGAIN-MONGATXURRAK	3-1
AGINASPI-BAR CANALEJAS	4-6
AZPEITXI JATETXEA-ORTZI	4-2
A ZE FLAXA ETXAGI-BILDURBAREK OPEL/LAM	3-3
SHAKTALE-IGANDEKOAK	3-1
MOSKIS-KAIXO	13-0
ALDOKA MALDOKA-INDARGORRI	1-1
MRW-POLIDEPORTIVO TABERNA	5-3
EZINLEIKE-AGIRREBEÑA JATETXEA	3-4
MANITOU-GANBARA ARI ARI	5-0
BAYER-AMILOTX	2-1
SLO-ARTUSAMAK	6-5
AMOZKIBAR-UVE BIKOITZA	5-1
JAKINA PT-TXIPIRON	1-4
AUTOBEREZI-KUSOAK	4-3
MATXAKATEGI-LA PEÑA DML	3-1
ERI SIRIMIRI-UFALA	1-4
FAC-ETENGABE	3-0
LA JUVE-KOMANDO PIPERRAK	7-1
GUADALEST-PATATUS	5-4

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: KAIXO-SHAKTALE • INDARGORRI
10:00: INDARGORRI-MOSKIS • BILDURBAREK OPEL/LAM
11:00: BILDURBAREK-AZPEITXI JATETXEA • MOSKIS
16:00: UFALA-LA JUVE • ETXAGI

Zapatuan kanpoan

17:00: JAUJA OH ZEREZOS-ETXAGI • AGIRREBEÑA
18:00: AGIRREBEÑA JATETXEA-MRW • JAUJA OH ZEREZOS

Domekan barruan

09:30: LA PEÑA DML-FAC • PATXARAN TEAM
10:30: KUSOAK-JAKINA PT • ERDIBITERRAK
11:30: ERDIBITERRAK-SLO • ARTUSAMAK
12:30: ARTUSAMAK-AUTOBEREZI • SLO
16:00: UVE BIKOITZA-BAYER • BAR GANBARA
17:00: BAR GANBARA-ERI • AMOZKIBAR
18:00: TXIPIRON-AMOZKIBAR • MATXAKATEGI
19:00: PATATUS-MATXAKATEGI • KOMANDO PIPERRAK
20:00: KOMANDO PIPERRAK-GUADALEST • PATATUS

Domekan kanpoan

09:30: GANBARA ARI ARI-EZINLEIKE • ORTZI
10:30: ORTZI-AGINASPI • PAGOMENDI
11:30: MONGATXURRAK-PAGOMENDI • ERROTAGAIN
12:30: BAR CANALEJAS-ERROTAGAIN • MONGATXURRAK
16:00: ARLOTEAK/OILAGORRA-A ZE FLAXA • IGANDEKOAK
17:00: IGANDEKOAK-MANITOU • POLIDEPORTIVO TABERNA
18:00: POLI. TABERNA-ALDOKA MALDOKA • MANITOU

TXINPARTAK

Behobia txikia

Bihar, zapatua, goizeko 10:30etan Behobia txikia jokatu da Bergarako korrikazaleek antolatuta. Irteera Agorrosingo igerilekuetatik izango da eta trenbide zaharretik Soraluzeraino joango dira. Ondoren, ekitaldiaren ezaugarri herrikoia azpimarratzeko, bazkaria egingo dute igerilekuetako tabernan.

Mendiko bizikleta irteera Fonsiren omenez

Fontsi zenaren lagunak eta Lokatza txirrindulari taldeak mendiko bizikleta ibilaldia antolatu dute domekarako. Irteera goizeko 10:30etarako iragarrita dago Gorla inguruan. Bertan, 14 urtetik gorakoek 36 kilometro egin beharko dituzte eta 14 urte baino gazteagoek, oster, 16 kilometro.

Bergarako Lagunak futbito taldeak, liga hasiera ona

Bergarako Lagunak futbito taldeak jokatu dituen lau partiduetatik bakarra galdu du. Lehenengo partiduan huts egin bazuen ere, hurrengo hiruretan errez nagusitu da Mikel Fernandezek eta Jose Romerok entrenatzen duten taldea. Joan zen eguakitzean Labegarairetan Pescados GJA taldearen aurka 11 eta 2 irabazi zuten. Bergararrek joko bikaina egin zuten eta kiroldegian bildutako futbito zaleak gustora geratu ziren. *“Lehenengo partiduan esperientzia falta erakutsi genuen eta hori ordaindu egin genuen, irabazten joan eta gero gol bakar bategatik galdu genuen eta; hurrengoetan, oster, taldeak oso partidu onak egin ditu. Gainera, primerako giroa dago taldean eta hori igartzen da”* adierazi digu Fernandezek.

Astean bi aldiz entrenatzen dira eta etxeko partiduak eguakitzetan 22:15etan jokatzen dituzte. Lehenengo partiduan



Talde sendoa osatzen du Lagunak futbito taldeak.

ikusleen erantzuna ona izan zen; bigarrenen jende gutxiago joan zen, baina Lagunak-ekoak pozik daude jasotako erantzunarekin. Taldeak sortzen dituen gastuei aurre egiteko bono laguntzak atara dituzte eta 500 pezeta-truke erosi daitezke.

Gipuzkoako selekzioa Gabonetan

Bestalde, Gabonetarako futbito torneo garrantzitsu bat antolatzeko asmoarekin dabilta Lagu-

nak elkartekoak. Gipuzkoako selekzioa ekarri nahi dute txapelketan parte hartzeko. Lagunak elkarteak nesken futbito txapelketa ere antolatu du azkenenengo bi urtetan eta aurreko Gabonetan beste torneo bat antolatzeko asmoa azaldu du. Txapelketan futbitoan parte hartu nahi duten Bergarako neska guztiek parte hartu ahal izango dute. Era berean, datorren urterako nesken futbito talde federatua ateratzeko asmoa dute.

Pilota eta pala txapelketak

Udal Kirol Zerbitzuak binakako pala-txapelketa eta eskuz binakako txapelketa antolatu ditu. Pala txapelketa zapatu arratsaldetan Osintxuko pilotalekuan jokatu da; eskuzkoa, berriz, zapatu goizetan Zabalotegiko pilotalekuan. Palako zein eskuzko Txapelketetan parte hartzeko 4.000 pezeta ordaindu beharko du bikoteak. Kirol Zerbitzuko bazkideek 2.000 pezeta ordaindu beharko dute. Txapelketak azaroaren 15ean hasiko dira eta izena emateko epea azaroaren 12an bukatuko da Udal Kirol Zerbitzuko bulegoetan edo 77 91 67 telefonora deituz.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Urki**

Lehen mailako jubenila.
Zapatua. 17:15.
Ipintza futbol zelaia.

◆ **Bergara-Antzuola**

Bigarren mailako kadetea.
Domeka. 11:00.
Ipintza futbol zelaia.

◆ **Bergara-Eibar**

Infantila.
Zapatua. 15:45.
Ipintza futbol zelaia.

ESKUBALOIA

◆ **Bergara-Lasalle Legazpi**

Kadete neska.
Zapatua. 17:15.
Labegaraieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ **Bergara-Calahorra**

Senior mutilak.
Zapatua. 19:00.
Labegaraieta kiroldegia.

PILOTA

Gipuzkoako Kluben arteko txapelketa.

◆ **Bergara-Erniope**

Kadete maila, binaka.

◆ **Bergara-Bearzana**

Junior maila, banaka.

◆ **Bergara-Altza**

Senior maila, binaka.
Eguakitza. 22:00.
Antzuolako pilotalekua.

Jose Luis Fernandez

Korrikalari beteranoa

66 urte beteko ditu datorren hilean eta 20 urte inguru darama antxintxika egiten. Orain dela 3 urte Behobia-Donostia lasterketa egin zuen eta aurten joango ez den arren, sasoi oso onean dagoela adierazi digu.

- Zela hasi zinen korrika egiten?

- Orain dela 20 urte inguru Bergarako korrikalari talde batekin lasterketetara joaten nintzen arropak eramatera eta laguntzera. Horrenbeste lasterketa ikusita korrika egiteko gogoia egin zitzaidan eta ordutik hainbat lasterketatan parte hartu dut. Behobia-Donostia bi alditan egin dut; Zumaia eta Soralezeko lasterketak eta Arrasate-Oñati 7 alditan; Bergarako lasterketetan ere aritu izan naiz.

- Zein da gehien gustatzen zaizun lasterketa?

- Behobia-Donostia duda barik. Aurten ezin izango naiz joan bidaia bat egin behar dudalako.

- Bihar Bergaran korrituko den Behobia txikira joango zara?

- Ez, baina pena handia ematen dit. Antolatzailerak oso jatorrak dira eta eurekin joaten naizenean mutikoa sentitzen naiz. Aterako duten kamiseta erostearekin konformatuko naiz.

- Egunero joaten zara antxintxika egitera?

- Ez, daukadan adinerako eta hankak ez nekatzeke, astean bi aldiz

edo asko jota hirutan entrenatzea gomendatu dit medikuak. Zapatuan Zubillagaraino 20 kilometro egin nituen eta ondo ikusi nuen neure burua.

- Probaren batean parte hartzeko asmorik baduzu?

- Oraingo ez, baina ondo baldin banago, Gabon Zaharretan Bergarako San Silbestre proban parte hartzeko asmoa dut.

- Jendeak zergatik ez du parte hartzen San Silbestre edo San Martin herri lasterketetan?

- Orain dela hiru urte 120 lagun inguru joan ginen Bergaratik Behobia-

Donostia korritzera; herriko probetan, ostera, oso jende gutxik parte hartzen du, San Antonabatekoan izan ezik. Ez dakit zergatik den hori. Nik neuk urte askotan parte hartu izan dut San Silbestre eta San Martinetan.

- Zer onura dakarkizu antxintxika egiteak?

- Korrika egiteari lagatzen badiot, kolesterolak igo egiten dit eta medikuak esan dit korrika egiten jarraitzeko. Medikuen aholkuak aintzakotzat hartu eta urte osoan zehar entrenatzera joaten naiz. Kirola adin guztietan egin daiteke.



Sasoi onean egon arren, aurten ez du Behobia-Donostia korrituko.

“Kirola adin guztietan egin daiteke; nik urte osoan entrenatzen dut”



Argazkia: Imanol Iriagarran

Antzuolako futbito taldea. 1979-80

Ez da institutuko argazki bat jartzen dugun lehenengo aldia, ezta futbol talde bat ateratzen dugun lehena ere. Oraingo honetan antzuolarrak agertzen zaizkigu. 1979-80 ikasturteko Ametsa futbol taldea. Bertan agertzen direnak oso ezagunak dira, alkatea bera ere ikusi dezakezue...

Antzuolarrek talde sendoa osatzen zuten, beti ibili izan dira aurrean eta gogotsu eta borrokalariak ziren. Konpenetrazio kontua izango ei da. Hara nortzuk direren argazkian agertzen direnak, ezkerretik hasita:

Zutik: Pedro Txintxurreta (bergararra), Jon Legorburu, Juan Simon Aristi, Mikel Larrea eta Jesus Mari Mata.

Makurtuta: Joseba Lezeta, Gotzon Iparragirre, Julen Iparragirre eta Nikolas Zabalo.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK ETEA

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21


Amaia Lurrindegia

USAINDEGIA ETA OPARIGAIK

*Perfume eta kosmetikan
eskaintzarik zabalena
aurkituko duzu*

EDERTZE ARETOA

*Orratzik gabeko betirako depilazioa
Termoslim metodoa
SOLARIUMA DUTXAREKIN*



Barrenkalea, 25 Tf. 76 16 97

ANDVZY

ANDUZU S.L.
ERAIKUNTZAKO MATERIALAK

San Juan,
Telleriko Lana poligono industrial
C-1B pabilioia Bergara

Telefonoa: 76 01 41
Faxa: 76 00,58



Grua zerbitzua ▲

Zerbitzu publikoa ▲

Era guztietako kargak ▲

Iraulkiak ▲

Grua ▲

■ Etxe barrurako

■ Azulejo-erakusketa

■ Onduline

■ P.V.C.

■ Blokeak

■ Pinturak

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Bainugelak, zeramika eta sukaldeak.

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behea.

Telefonoa: 76 03 30. Faxa: 76 02 91



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR

Sukaldeko altzariak